



Pasaia Blues
Harkaitz Cano

Liburuak konbentzitu egin nau. Hasieran zera pentsatu nuen: “Hona hemen Twist nobela bikainaren atarikoa”. Hau da, aurrerago Twist nobela luze, konplexu eta interesgarrian amaitu behar zuen zirriborro antzeko baten gisa ikusi nuen liburua. Dena den, nobela honek bigarrenak adinako zentzua daukala esango nuke. Laburragoa da, baina beste hura bezain bizia ere bada. Gaian, ikuspegian eta pertsonaiei ematen zaien tratamenduan antzekoa da oso... Egia esateko, Harkaitz Cano euskal letren munduko urrezko nobela beltzaren sortzailetzat joenezake, nik uste. Eta hori hala da alde guztietatik kalitate handia erdietsi duelako: euskara ona, sendoa, “gihartsua”, oso batua (itzulpena ekartzen du gogora); eta beste alde batetik, ondo planteatutako gidoi bat, oso logikoa berau, pittin bat *pelikuleroa* baina, tira, nobelagintza beltz osoa izan ohi den bezala –beste hizkuntza batzuetan idazten dena barne.

Azkeneko 50 orriak arreta handixeaz irakurri behar dira, gertaeren haria galduko ez badugu. Batez ere, Cesar Telleria zerraldo erortzen denean Marta haren etxera igotzen den bitartean –asmo ez oso onekin, preseski...-. Zati hori nahiko nahasgarria da... baina, bueno, baita burutsua ere. Hori bai, azkenean inortxo ere ez da bizirik ateratzen, ezta *apuntadorea* ere.

Euskal nobela beltza, Trantsizioaren Garaiko Belaunaldiko idazle batek sortua. Nire ustez, esapide edo etiketa hori (“Trantsizioaren Garaiko Belaunaldia”) beldurrik gabe erabil dezakegu. Izan ere, une honetan, trantsizioaren gertaeren harira sortutako eta forjatutako idazle-sorta eder bat daukagu. Gu denok markatu gintuen trantsizio bat izan zen. Eta trantsizio horrek, tematikoki elkarrekin estu loturik dauden idazle eta obra askotxo emateaz gain, garai hura ondo islatzen jakin duen –eta garai hartako kanoi-bazka ere izan den– idazle-belaunaldi edo idazle-talde bat ere ekarri du emaitza modura. Trantsizioaren Garaiko Belaunaldiak fruitu handiak eman ditu, eta ematen jarraitzen du. Nire ustez, garai gogor haiek noblezia edo jatoriasun berezia eman diote idazle-belaunaldi honi, baita ezaugarri jakinak helarazi ere (horregatik, hain zuzen, hitz egin dezakegu orain aipatutako belaunaldiaz).

Berriz ere nobelari helduz, liburuan zehar nahasgarri samar gertatzen den pertsonaia bakarra Veronica da. Pertsonaia hau liburuaren hasieran bertan azaltzen zaigu, Lisboan... eta gero obran hartzen du parte, bai, baina amets batean bezala, liburu ia osoan desagerturik egotetik azken gertaeren garapenean leku nabarmenegia hartzera igarotzen delarik. Irakurketa digitalen alde txarretako bat liburuak ezin orrikatzea da formatu tradizionalerako liburuak bezain erraz, eta hori dela-eta zenbait atal erreparatzea edo gainbegiratzea deserosoagoa da... Dena den, Verónica liburuko protagonista psikodeliko-polizialaren “beste nia” izango zen... protagonista eskizofreniko, alkoholzale eta pilulazalearen mamua-edo (pertsonaia psikotikoaren beste nia, eldarnio huts...)

Bestalde, Canok halako tarte bat jartzen du beraren eta protagonisten artean, eta hori ere azpimarratu beharreko zerbait da; areago, ikuspegi emozional batetik begiratuta, arbuioa

sorraraz diezaguketen pertsonaiekiko distantziari eusten dio Harkaitz Canok (pertsonaia horiek polizian edota torturazaileen artean ibili arren.). Nire ustez, Cano beti saiatzen da patxadari, odol hotzari eusten, eta pertsonaiak ezaugarritzen ahalegintzen da, bai, baina bere zerbitzuan jarri gabe; aitzitik, benetako pertsonaiak sortzen saiatzen da, eta horrek berekin dakarkio pertsonaien barruan sartzea, haien larru-azalaren barruan sartzea, beraien lekuan jartzea, gauzak beraien begiradarekin ikustea, eta pertsonaiei itxura gizatiarra edo hurbila ematea. Hori, nobelari ikusten diodan beste meritu bat da.

Berriz esango dut: Harkaitz Canori egin diodan irakurketa berri honek osterera ere konbentzitu egin nau. Panorama literarioan nabarmentzen den idazle baten aurrean gaude. Eta bi liburu hauekin soilik, ondo irabazitako leku bat dauka euskal literaturan. Horrez gain, “euskal nobela beltza” argi eta garbi dei genezakeenaren aitzindari baten gisa eta Trantsizioaren Garaiko Belaunaldiko idazle esanguratsu baten gisa ere ikusten dut.